

Agerraldia

egin

zuen atzo
plataformak ▶ 2

~~GERONTOLOGIKOR~~

ETA ORAIN ZERT?
¿Y AHORA QUÉ?



Harpidedunei banatua ▶ Osteguna ▶ 2005-10-27 ▶ III. urtea ▶ 721. zenbakia ▶ www.tolosaldekohitza.info

ANA ARRETXE ▶ TEE-KO ZUZENDARIA

«Abesbatzak egiten dakitena erakustera etortzen dira»

TOLOSA ▶ Urduri baina ilusioz mintzatu da zuzendari berria saioen atarian

USABAL ▶ Haren iritziz, lehiaketa bertan egiteak ez du eragin salmentetan ▶ 3

TOLOSA ▶

Asteburua festa giroan igaroko dute Olarrain auzoan

Igandean, Peña Olanok antolatutako XVII. Mendiko Bizikleta Trabesia ▶ 6

TOLOSALDEA ETA LEITZALDEA ▶

Gizarte osoari deia egin dio Etxerat-ek biharko

EPPKri izaera politikoa aitortzea eta Euskal Herriratzea aldarri, bihar ▶ 7



I. GARCIA



Kulturunea erabiltzen hasi dira jada

IRURA ▶ Eraikin berria martxan da; lau gela ditu erabilgarri: Gaztelekua, musika gela, eskulanetarako eta soinketarako ▶ 4

ARMA eta GIDA



baimenak

- Zitarik gabe
- Zure tramitazioa azkartzen dugu
- Donostiarako joan-etorriak ekiditzen ditugu
- Etxean jasoko duzu baimena



R.P.S 401/04

'SAN INAZIO' MEDIKU ZENTROA

San Inazio 2 (Muñazabal Altzarien ondoan) • TOLOSA

15:30etik 19:00etara

TOLOSA ▶

Gaur hasiko da zine-klubeko denboraldi berria

'Que es la vida' filmak zabalduko du; Kultur Etxean izango dira saioak ▶ 5

BEDAIO ▶

«Giro ederreko» Jubilatutako Eguna

Meza eta bazkaria izan zituzten ▶ 5

GERONTOLOGIKOA ▶

Gerontologikoaren itxierak sortutako arazoak salatu dituzte

Itxaron zerrendak eta zerrenda hauen ondorioz adinekoak kanpora joan behar izatea izan ditu ardatz plataformak

NOELIA LATABURU

Gerontologikoaren itxierak eragin dituen ondorioak salatu ditu itxieraren aurka sortutako plataformak. Arazo hauen berri emateko prentsaurerakoa eskaini zuten atzo plataformako kideek. Bi puntu nagusi azpimarratu nahi izan zituzten: itxaron zerrendak, batetik, eta zerrenda hauen ondorioz gure eskualdeko adinekoak kanpora joatea behartuta izatea, bestetik, honek haiengan bai eta senitartekoen artean ere eragiten dituen eragozpenak ahaztu gabe. Honen guztiaren aurrean Tolosako Udalari eta politika-

riei deia luzatu die plataformak, «behin betiko konpontzeko gure Gerontologikoaren itxierak sortutako arazoak».

Gerontologikoan zegoen jendea Tolosako zentro asistentzialetan sartuz arazoa konponduko zela esan zuen Gizarte-Ongizate diputatu Esther Larrañagak. Plataformakoei adierazi dute «arazoak berean» jarraitzen duela, «beste aurpegi batekin». Arazo honen adierazgarria itxaron zerrendak dira: «Azken sei hilabeteotan Tolosaldean eskaintzen direnak baino 50 bat plaza gehiago behar dira». Itxaron zerrenda hauek «argi erakus-

ten dute» arazoa ez zela sortu Tolosako plaza asko eskualde-tik kanpoko jendeak okupatu-ta zeuzkalako edo plaza horietako batzuk beste zentroyen batean egon behar zuten pertsonal gaituek okupaturik zeudelako. Hain zuzen ere, kideen arabera, eskualdekoa ez zen jendea bere eskualdetan kokatu zen eta, «teorikoki», baliagarriak direnak erakutsi dute egoitza batek ematen dien arreta behar dutela bizitzeko. 2002ko Gipuzkoako Diputazioaren Gizarte Zerbitzuen Mapak arazoa estrukturala ez zela zioela ere aipatu zuten bereziki, «etengabekoa baiziki».



Atzo arratsaldean Gerontologiko plataformaren prentsaurerakoa. N. L.

Bestalde, Tolosako biztanleei ere deia luzatu nahi izan zieten atzokoan; plazen eskaera eskaintza baino handiago den heinean, «guztiak pairatzen hasi gara arazoa jadanik, batik bat familiakoak»: egoitzaren beharra dutenek, egoerari etxean aurre egin ezinik dandenez —askok urtebete baino gehiago daramate zerrendetan—, beste eskualderen bateko egoitzetan sartu behar izan dute, «hemen plazaren bat libre geratu eta itxaron zerrendan tokatzen zaienean itzultzeko asmoarekin». Berra, Sanitas, Gurutze Gorriaren zentro sozio-sanitarioa, Matia, Fraisoro, Segura eta Irun dira, beste-

ak beste, egoitza horietako batzuk. Kanpora joateak adinekoen beren familiengandik urruntzea eta «senidekoen berotasuna faltan» izatea eragiten dietela ere salatu dute. «Katearentzat hau arazoa ez bada ere».

Itxieraren harira, politikariek «aurpegi eta berbaldi bi-koitzairen gainean» jardun zuten. «Udal ordezkariak ados azaldu ziren itxierarekin, ondoren Larrañagak zerrendak teknikoak direla esan zuen; ez dira familiartekoei eseri hitz egitera, joko bikoitza eginez». Udalaren «erantzunaren zain» geratzen dira orain, beraiek «ez baitute amore emango».

FUTBOLA ▶

Denboraldiko seigarren garaipena, Urnietaren aurka, Tolosako nesKentzat

3 eta 0 amaitu zen partida, Izaskunen, Iratiren eta Olatzen golei esker

ERREDAKZIOA

Tolosa CFko neskek aurtengo denboraldiko seigarren garaipena lortu zuten pasa den igandean Urnietaren aurka 3-0 irabazi ondoren.

Partidua Usabalgo zelaian jokatu zen igande goizean. Gauean egindako euria zela-eta zelaia oso azkarra zegoen, baina urdinek ez zuten denbora asko behar izan partiduari

eta baloia tamaina hartzeko. Markagailua Izaskunek ireki zuen, eta une batzuk beranduago Iratiz 2 eta Okoa lortu zuen area kanpotik botatako baloi bati esker. Tolosarrak oso ondo ari ziren baloia zelai gutxitik mugitzen, eta emaitza hau motz geratzen zela iruditzen zitzaien animatzera joan zirenei; dena den, horrela heldu ziren atsedendira. Bigarren zatian, eta segituan egindako aldake-

ta batzuen ondoren, taldearen erritmoa asko jaitsi zen; baina, hala ere, hirugarren gol bat egiteko gai izan ziren urdinak, Olatzen eskutik.

Orokorrean, tolosarren joko-a «oso ona izan zen», baina gol gehiagoren faltan geratu ziren jokalariei zein zelaira bertaratu ziren zaletuek.

Hurrengo partida, berriz, Vasconiaren aurka izango da, Martuteneko zelaian.

GIZARTEA ▶

Bortxaketa saiakera izan da Belate auzo inguruan

Gertakaria iragan asteazkenean jazo zen; bizilagun batek ohartarazi zuen Udaltzaingoa

ERREDAKZIOA

Iragan asteazkenean, urriaren 19an, bortxaketa saiakera izan zen Tolosan, Belate auzoa eta Hernialdeko Bentaren artean, Belate auzoko bizilagun batek jakitera eman duenaren arabera. Gertakaria gualdean jazo zen; neska edo emakumea laguntza eske hasi zen builaka, eta ibaiaren bestalde-

tik bizilagun batek entzun eta Udaltzaingoa deitu zuen. «Horri esker libratu zen neska bortxaketatik; izan ere, leku oso iluna da eta jende asko dabil paseoan, korrika edo Anoetara joaten edo handik etortzen», adierazi du bizilagunak.

Udalari ere deia luzatu nahi izan diote «denon segurtasunerako, argia jar dezan».

hitza **txokoa** lagunena

HITZAren harpidedunen artean zozketatutako **ELOLA ALTZARIAK**eko Tempur markako bi buruko zerbikalen irabazlea.

AMAIA ASKASIBAR AGIRRE (TOLOSA)



Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAren harpidedun ordaintzaileen artean zozketak astero

ANA ARRETXE ▶ TEE-KO ZUZENDARIA

«Egiten dakitena erakustera etortzen dira abesbatzak»

Ikusleek saioak gustura jarraitzen dituztela dio, eta aurten lehiaketa Usabalen izateak ez duela salmentetan eragin

IRATXE ETXEBESTE

«Beldur pixka bat badugu, euria eginez gero Usabal kirol eta aisialdi guneko aretoan kanpoko zarata entzun egiten delako zertxobait; baina proba egin genuen bere garaian, eta oso ondo entzuten da». Hori da CIT-TEE, Tolosako Ekinbide Etxeko lehendakari berriak 37. Abesbatza Lehiaketaren harira Hrrzak elkarrizketa egiteko asmoa ziola esatean erantzundakoa. Lehendabizikoz heltzen dio aurtengoan lehendakari gisa erronkari, baina eskarmentua badu lehenagotik antolatzaileen laguntzaile modura. Ana Arretxe urduri antzean da lehiaketarako ordu gutxi batzuk baino falta ez direnean.

Derrigorrezko galdera: Leidorren aldean, egokia al da Usabal Abesbatza Lehiaketako saioetarako?

Irailaren 5ean proba egin genuen Hodeiertzen entsegua bertan eginda, eta oso ondo entzuten delako hartu genuen lehiaketa han egiteko erabakia. Egia da kanpoko soinua entzun egiten dela pixka bat barrutik, baina atzealdeko errepidia itxita izango da datozen egunetan, eta arazoari irtenbide egokia eman zaiola iruditzen zait. Arazoa da kiroldegia bateko kantxa txukundu behar izan dela auditorio bihurtzeko, kontzertu bat egiteko egokitua ez dagoenean.

Aldaketarik egin behar izan al duzue leku aldaketagatik?

Leidorren ez izan arren ez dugu lehiaketaren maila jaitsi. Ahalik eta abesbatza onenak ekartzeko saiatu gara aurten ere, eta helburu berarekin antolatatu dugu: lehiaketa ona izatea eta maila altua edukitzea.

Emanaldi berezian inguruan bada aldaketarik...

Normalean abonua ordainduz entzun ahal izaten da kontzertu berezia, baina aurtengoan bi izango dira, eta, gainera, doan, urrutiago joan behar izango dutenez, nolabait horren ordainetan antolatzaileok herritarrei sariren bat emateko. San Frantziskon izango dira bi saio horiek. Alemaniako eta Kubako taldeek eskainiko dituzte.

Zergatik bi talde horiek?
Alemaniakoa, 6 mutilek osatutako taldea delako, eta ez dela-



IRATXE ETXEBESTE

ko ohikoa ahots talde txikiak gizonezkoekin osatuta ikustea. Baita oso onak direlako ere, jakina. Bestalde, Kubako musika asko gustatzen da hemen; musikalitate berezia dute. Hiru neskek eta bi mutilek osatutakoa da Kubako taldea.

Euskal talderik ez, aurten ere.
93an hartu genuen parte azkeneko Hodeiertzekin, eta hurrengo urtean Ordiziako Oroith aritu zen; handik hona ez da ahots nahasietan euskal talderik aurkeztu. Ahots berdinetan bai, baina nahasietan ez. Etxean aritzerakoan askoz handiagoa da babesa kanpoan zaudenean baino, baina ardura ere bai. Azken batean, beldurra ematen du etxean jarduteak.

Sarreraren salmentan nabaritzen al da aldea aurreko edizioetatik?

Usabalen izateagatik gutxiago salduko zirela uste genuen, baina ia denak salduta daude honezkerok. Jendeak oso ondo erantzun du aurten ere.

Abesbatza Lehiaketak sortu al du zaletasuna eskualdean?

Kuriosoa da: apirilean elizaren batean kontzertua antolatuz gero ez da ia inor joaten, eta, aldiz, Abesbatza Lehiaketara herritar mordoa etortzen da. Nik uste dut jendeak pentsatzen duela lehiaketan aritzeagatik ziurtatua dagoela talde horiek onak izatea. Batzuetan gogorrak izaten dira emanaldiak, abesbatzak zer egiten dakiten erakustera etortzen direlako. Baina gustura jarraitzen dituzte ikusleek.

Tolosan izango da 2006an Europako Txapelketa...

Ekainaren 18rako Leidor aretoko lanek bukatuta egon beharko dute horretarako. Orain 6 urte izan zen txapelketa azkeneko Txapelketa.

Bukatzeke, zer da lehiaketa hasi baino ordu batzuk lehenago buruan duzuna?

Dena ondo atera dadila! Hori xe, batez ere. Indarrak hartu behar ditugula ere bai, laster Txotxongilo Lehiaketa ere etorriko zaigulako.

Autobusa, aurretik eta gero

TEEK autobus zerbitzua jarriko du abesbatzetako saio bakoitzaren aurretik eta gero erdialdetik Usabalera joateko eta emanaldiaren ostean handik herrira bueltatzeko. Ekitaldi bakoitzaren aurretik zezen-plazatik irtengo da autobusa: hain zuzen, emanaldia baino hiru ordu laurden lehenago

lehen, eta saioa baino ordu laurden lehenago bestea.

Itzultzerakoan, berriz, bi autobusak ordu berean abiatuko dira Usabal kirol eta aisialdi gunetik zezen-plaza aldera: emanaldiak bukatzerakoan. Nahi duten herritarrek erabili ahal izango dute autobusa, dohainik. ◀

ipuin harrigarriak

Herri literaturaz gozatzeko kondairak, ipuinak, istorio bitxiak

Ipuin harrigarriak 1
Kastillopranko Biribil-biribilak
Ipuin harrigarriak 2
Dar-dar
Ondo eginarene ordaina
Ipuin harrigarriak 3
Gatza ala erregea
Biziak ezagutzeko hil
Ipuin harrigarriak 4
Zapatari asmatzailea
Zerraldoan bizirik
Ipuin harrigarriak 5
Ikazkina eta heriotza
Besterik ez bezalako kapela
Ipuin harrigarriak 6
Estudiante Tonto
Ezkonberriak
Ipuin harrigarriak 7
Kanillo arrantzalea eta Kanillotxiki
Zeruko berriak
Ipuin harrigarriak 8
Pepetxu eta Popatxu
Kardulaza salatari

Urriaren 8tik aurrera ASTEBURUETAN

berria

+ 3 €

Laguntzaileak

Euzko Lehen Unibertsitatea

Bizkaia

IRURA ▶ KULTURA

Kulturunea martxan jarri dute



Loatzo musika eskolekoek musika gelan klase ugari ematen dituzte. I. GARCIA

Lau gela ditu eraikin berriak: Gaztelekua, musika gela, eskulanetarakoa eta soinketakoa

IMANOL GARCIA

Irurako Kulturune berriak hazi du bere ibilbidea. Herriko jaie-tan egin zuten inaugurazioa eta orain erabilpena ematen ari dira pixkanaka. Proiektu garrantzitsua da herriarentzat, Marimi Ugalde alkatearen hitzetan: «Irura hazten doa, eta lehendik dauden azpiegiturak txikiak gelditu dira. Irurarrek beren ekintzak herrian bertan egiteko leku bat atontzea beharrezkoa zen».

Kulturuneak bi solairu ditu, eta goikoan daude kokatuta erabiltzen diren lau gelak. Horietako bat Gaztelekua da. As-teartetik ostegunera 17:15etik 19:15era, ostiralean 17:00etatik 20:00etara, eta larunbatean 16:00etatik 19:00etara dago irekita. Josune Artola bertako arduradunak azaltzen du lekuaren helburua: «Gazte-en leku bat izatea, beren lekua izatea du helburua. Kalean egon beharrean elkargune bat izatea». 12 eta 17 urte bitarteko haurrentzako gune bat da, eta denetik dute bertan: ordenagailuak eta Internet, telebista play-station-en aritzeko edo bideoak eta DVDak ikusteko,

ping-pong mahaia, dardoetan jokatzeko aukera, aldizkariak, mahai-jokoak... Azarotik aurrera, gainera, astean ekintza bat antolatu nahi du Artolak: «Txapelketak egitea, filmaren bat ikustea, irteerak egin Txuri-urdinera eta beste leku batzuetara... Horrelakoak».

Musika gela da bestea. Bertan Loatzo musika eskolak klaseak ematen ditu. Onintza Erki-ziak tronpetako eta hizkuntza musikaleko irakaslea da, eta Kulturunean klaseak ematea hobekuntza handia dela azaltzen du: «Abantaila handia da. Lehen Ikastolan ematen genituen eta bertako irakasleekin konpondu behar genituen ordutegiak. Orain lehenago etortea badaukagu gauzak prestatzeko». Beste gelak ere erabiltzen dira musika klaseak emateko.

Eskulanetarako gela tailer ezberdinak egiteko atondu-ta dago: egur-taila, pintura, kera-mika... Eta, azkenik, soinketa gela dago. Bertan helduentzako soinketa ematen da, eta aurrera ateraz gero, aerobik, are-toko dantzak eta antzerki ikas-tarokak emateko ere erabiliko dute.

Doan BERRIArekin

Pirritx eta Porrotx

Familien karta-jokoa

Azaroaren 5etik aurrera

berria

Eskualdeko lekuak dagoen berria

KIROLA ▶

Eskualdeko txirrindulariak Bordelen

Gipuzkoa Moyua-rekin lehiatuz, eskualdeko txirrindulariak ondo aritu ziren Bordelen jokatu-tako GP L'Humanite-n. Pistako proba honetan Leire Olaberria ikaztegitarrak hirugarren postua lortu zuen puntuazioan eta laugarrena scratch-ean. Xabier Artola tolosarra abiadurako proban lehiatu zen, eta Ainhoa Pagola tolosarra abiadura eta 500 metroko proban.

ZIZURKIL ▶

Modes Iraolak brontzeko domina

Modes Iraola ehiztari zizur-kildarrak brontzeko domina lortu berri du Munduko Txapelketan. Danimarkan jokatutako lehiaketa gogorra izan zen, baina Iraolak puntuazio bikaina lortu zuen. San Huberto modalitatean lortu zuen hirugarren postua. Mayo de Belkoan izeneko pointer arrazako zakurrarekin lortu zuen domina.

HERNIALDE-IRURA ▶

'Belardo'-ren ibilerak ipuin-marrazkitan

Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta, Iñaki Martiarena *Martin* marrazkilarik *Belardo* belar metaren ibilerak ipuin-marrazketak eskainiko ditu gaur. Bi herritan izango da. Lehenengo, Hernialde, 17:00etan, liburutegian; eta ondoren Iruran, 18:00etan, liburutegian ere. Bost eta zortzi urte bitarteko haurrei zuzenduta dago ekitaldia.

TOLOSA ▶ ZINE-KLUBA

‘Que es la vida’ filma, zine-kluba hasteko

Denboraldi honetan Kultur Etxean izango dira saioak

MARTA SAN SEBASTIAN

Tolosako zinezaleak zorioneko dira. Izan ere, zine-klubeko lagunak hasi dira berriz ere ekinean, eta bihar, 21:30ean, Kultur Etxeko areto nagusian, *Que es la vida* filma proiektatuko dute. Datorren urtera begira, Gipuzkoan kultur sarea sortzeko ahaleginetan dira, Foru Aldundiaren adostuta, kultur ekitaldi hauen gastua merketzeko. Horren esperoan, oraingoz, Tolosan ohiko zine-klubari ekin diote, Kultur Etxean.

Orain arte zine-kluba Leidor aretoan egin ohi zuten astero-astero. Hutsune horren aurrean, ezin geldirik egon, eta Kultur Etxeko areto nagusia aukeratu dute zinezaleek euren osteguneroko hitzordurako. Tolosako mugimendu kulturaren ikur da aspaldidanik zine-kluba.

Aurrera begira

Aurtengo zine-kluba Leidorrek sortu duen hutsuneari aurre eginik antolatuta da. Datorren urtera begira, ordea, hainbat proiektu berri dituzte mahai gainean. Urtean zehar bilera irekiak antolatuta dituzte iritziak eta ideiak biltzeko asmotan,

EGITARAUA ▶

Gaur. *Que es la vida*, Francois Dupeyronen filma. Donostiako Zinemaldiko Urrezko Maskorra film onenari eta Zilarrezko Maskorra Jacques Dufilhoren interpretazio lanagatik.

Azaroak 3. *Moolade* Ousmane Sembene zuzendariarena. *Una cierta Mirada* saria jaso zuen 2004an Cannesen.

Azaroak 10. *El señor Ibrahim y las flores del Coran*. Francois Dupeyronena.

Azaroak 17. *Contra la pared*, Fatih Akinena. Berlinen Urrezko Hartza saria irabazi zuen 2004an eta urte berean Europako Film Onenari saria.

Azaroak 24. *El pabellón de los oficiales*, Francois Dupeyronena.

Abenduak 15. *The Mother*, Roger Michell zuzendariaren lana.

guztiak ere zine programazioa aberasteko. Talde horren iritziak zine-klubekoekin bat egin dira. Adostutako proposamenak Udalera eta Diputaziora bidali zituzten. Argitu dutenez,



Que es la vida filma izango da denboraldiko lehena. HITZA

«oso harrera ona» izan dute proposamen hauek Aldundiko Kultur departamentuan.

Diputazioak datorren urtean Koldo Mitxelena Erakundea izeneko proiektua gauzatu nahi du, eta Tolosako talde honen iritziak bat omen datoz zine alorrean proiektu horrek dituen helburuekin. Asmoetako bat Gipuzkoan kultur sare bat eratzea da ekitaldien antolaketa merketu eta erraztearren. Filmen inguruan ez da murrizketarik izango, eta mota guztietakoak eskainiko dira. Hala ere, proiektu honen edukia Udalek erabakiko dituzte.

AMEZKETA ▶

Emaitza onak Elkarteen Arteko Txapelketan

Amezketan izandako bost partidetatik lau irabazi ditu Zazpi-Iturri taldeak

M. SAN SEBASTIAN

Gipuzkoako Elkarteen arteko Liga Txapelketan Zazpi-Iturri taldea joko ona erakusten ari da, eta emaitzak ere aldeko ditu.

Pasa den astean Amezketan izandako bost partidetatik lau etxean geratu ziren. Eskuz banakako Nagusien Mailan, Zazpi-Iturriko Igor Baezek 22-8 irabazi zion Ilunpe taldeko pilotariari. Ondoren jokatu zen eskuz binakako Nagusien 1. mailako partidari Zazpi-Iturriko Baez eta Mintegik talde bereko Elurbe eta Garmendia garaitu zituzten. Eskuz banaka, aldiz, Alez Sukia etxeko kadetak 22-12 irabazi zion Behar-Zanako Jon Urbietari. Eskuz banaka gazteen kategorian, Zazpi-Iturriko Unai Garmendiak ezin izan zuen Txapagaineko pilotaria garaitu. Eskuz binakako gazteen 1. mailan etxeko Zabala-Leundak 22-19 irabazi zioten Anaitasunari.

ALEGIA ▶

Antzerkia eta bertso eskola, Kultur Astea amaitzeko

Antzerki saioa Kultur Etxean izango da, eta emakume askoren egoera islatzen du

M. SAN SEBASTIAN

Alegiako II. Kultur Astea amaierara iristen ari da ekitaldi betetako aste baten ondoren. Hala ere, gorde dituzte aste honetarako ekitaldi gehiago.

Gaur, Kultur Etxeko batzar aretoko ateak gauez zabalduko dituzte herritarrentzat. Bada, *Nora hoia neska antzerki saioa* eskainiko dute Edurne Agirrezabala eta Begoña Amonarriz antzezleek.

Umorezko komedia da, egungo emakume askoren egoera islatzen duena. Senarrarengandik banandu ondoren bere bizitza kontatzen du protagonistak. Ezkonduta egon zeneko urte horietan lana utzi zuen, eta baita beste gauza asko ere. Baina etsipenak hartuta dagoela dirudienean berpiztu egiten da, galdu duen denbora berreskuratzeko prest...

Etzi, bertso eskola irekia izango da Aitor Mendiluzerekin. *Bertsolaria bakarkako lanaren aurrean* gaiari buruz mintzatuko da.

BEDAIO ▶ JUBILATUAK



Jubilatuak euren egunean

M. San Sebastian ▶ Pasa den igandean Bedaioko jubilatuek egun berezia ospatu zuten. Urtero legez, aurtengoan ere Jubilatuta Eguna izan zuten festarako aitzaki. Bazkal aurretik, 12:45an Meza Nagusia izan ziren, eta ondoren bazkaritarako Bedaioko Artubi elkarrean bildu ziren. «Giro ederra» izan zela azaldu dute bertaratutakoek. Hurrengo urtean errepikatzeko aitzakia nahikoa bada. HITZA

IKAZTEGIETA ▶

EHNA bideratzeko aukera larunbatean

M. SAN SEBASTIAN

Tolosaldean egiten ari den tramitazio kanpainaren baitan, Ikaztegieta ere aukera izango da Euskal Herriko Naziotasun Agiria eskuratzeko asteburuan.

Larunbat goizean, 10:00etatik 13:00etara bitarte, udaletxera gerturatzea nahikoa izango da agiri hori bideratzeko. Horretarako, udal-txean eskura daitekeen erroldatze orria eta argazki txiki bat aurkeztu beharko dira bertan. EHNA bideratzeko 11 euro ordaintzea beharrezkoa izango da.

OSTALARITZA

GIDA 2006

Tolosaldeko eta Goierriko:

- Jatetxeak
- Erretegiak
- Pintxo tabernak
- Sagardotegiak

bilduko dituen gida.

Jarri zure iragarkia ostalaritza gidan

17.000 aleko banaketa zabal

Iragarkiak kontratatzeko: 843 304 333 publi@iragarri.net

IBARRA ▶ KULTURA

San Bartolome jaietako argazki erakusketa ikusgai azaroaren 4a bitarte Benito Izagirre kultur etxean

Bertaraten direnek argazkien kopiak eskatzeko aukera izango dutela azaldu dute

IÑIGO TERRADILLOS

Ibarrako Udal Kultura eta Gazteria sailak aurtengo San Bartolome jaietako argazki erakusketa antolatu du, eta datorren azaroaren 4a bitarte ikusi ahal izango da Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean. Ordutegia honakoa izango da: asteleheneretik ostiralera, 10:00etatik 13:00etara eta 15:30etik 21:00etara.

Festa Batzordeko kideen lanari esker, jaietako ekitaldien irudi grafiko ugari jaso ahal izan dituzte. Era berean, hainbat herritarrek era boluntarioan entregatu dituzten argazkiak aurtengo jaietako ondare grafiko garrantzitsu bilakatu dira eta, horregatik, pertsona

horiek herriarekiko izan duten eskuzabaltasuna eskertu nahi izan dute.

Antolatu duten jaietako argazki erakusketak «gauzatu denaren isla» izatea du helburu. Noski, material guztia erakusteko aukerarik ez dute izan; baina, hori bai, egindako argazkien aukeraketarekin herriarentzat nabarmenki garrantzitsua den jai aldia islatu nahi izan dute.

Halaber, erakusketara joaten diren herritarrek bertan aurkitzen diren argazkien kopiak eskatu ahal izango dituztela azaldu dute. Horretarako bereziki prestatu dituzten eskari orriak betez eskatu behar dituzte, Kultur Etxeko harrean.



Horrelako argazkiak ikusi ahal izango dira erakusketan. HITZA

TOLOSA ▶ JAIK

Festa giroa nagusituko da asteburuan Olarrain auzoan

Igandean, Peña Olanok antolatutako XVII. Mendiko Bizikleta Trabiesa izango da

I. TERRADILLOS

Ekitaldiz beteriko asteburua izango dute Tolosako Olarrain (Benta Haundi) auzokoek; izan ere, bihar hasita jaietan murgilduko dira.

Egun handia igandekoa izango bada ere, ostiralean Mus Txapelketa egingo dute,

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Neska sukaldaria behar da. Igandean jai. Deitu 606 61 52 93 zenbakira.
Iturgintza. Iturgintza, berokuntza eta gas lanetarako langilea behar da. Deitu 656 41 68 08 zenbakira.
Peoiak. Hiru peoi behar dira obratarako. 685 72 01 18.

SALGAI

Furgoneta. Furgoneta salgai. Nissan Serena (1995ekoa). 1,50eko ohearekin. 3.000 euro. Deitu 658 72 76 99 zenbakira.

eta larunbatean auzokideen arteko afaria eta trikiti saioa izango dute festa alaitzeko.

Igandean, berriz, 10:00etan XVII. Mendiko Bizikleta Trabiesa Herrikojari irteera emango diote. Peña Olanok antolatzen duen trabesia 14 urtetik gorakoentzat izango da, eta izenematea 08:30etik 09:30ak bitartean egingo da, Lagun Artea elkartearen artean mendiko bizikleta bat zozketatuko dute, eta beste hainbat sari ere banatuko dituztela adierazi dute. Trabiesan zehar, hornimendua, mediku zerbitzua, laguntza mekanikoa eta dutxa zerbitzua izango dute txirindulariek.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

‘Zeuk idatzi’. Eskualdeari buruzko albisteak sartzeko aukera duzu gure webgunean, *Zeuk idatzi* atalean. Animatu, eta jarri denen eskura zure berria!



Bizikleta trabiesa, igandean. N. L.

Bestalde, ekitaldi gehigo ere antolatu dituzte egun horretarako. Eguerdia aldera txaranga auzoan zehar giroa alaitzen hasiko da, auzoko helduek hamaiketako hartzen duten bitartean. Gaztetxoak ere gustura ibiliko dira, eurentzako jolasak jarriko baitituzte. Bazkarian hasitako festa luzatu egingo da, bertsolariek eta trikitilariak jarriko baitute giroa; eta, jaietako amaiera behar bezala emateko, baratzeri zopa hartuko dute auzokideek.

EGITARAUA ▶

BIHAR

22:00. Mus txapelketa.

ETZI

21:00. Auzokideen arteko afaria.

Ondoren. Dantza saioa, Aiora eta Maitane trikitilariak alaituta.

IGANDEA

10:00. Mendiko Bizikleten XVII. Trabiesari irteera emango diote.

11:00. Meza nagusia auzoko kaperan.

12:00. Hamaiketako.

12:00. Txaranga ibiliko da auzoan zehar.

12:30. Gaztetxoentzat jolasak.

14:00. Auzokideen arteko bazkaria, Bixente Gorostidi eta Ekaitz Goikoetxea bertsolariekin eta Aiora eta Maitane trikitilariarekin.

Goizaldean. Jaietako amaiera baratzeri zoparekin.

IBARRA ▶

Kiroldegia zabalik aurrerantzean jai egunetan

Ibarrako Belabieta Udal Kiroldegitik azaldu dutenez, datorren asteartetik aurrera, hau da, azaroaren 1etik aurrera, igandetan nahiz jai egunetan bertako bezeroek kiroldegiko instalakuntzak erabiltzeko aukera izango dute, egun horietan ere atekari ireki egingo baititu Belabietak.

IBARRA ▶

Ipuin kontalari saioa gaur Kultur Etxean

Ibarrako Udal Liburutegiak antolatuta, gaur ipuin kontalari saioaz gozatzeko aukera izango dute etxeko txikienek. Emanaldia 17:30ean hasiko da, eta Ibarrako Benito Izagirre kultur etxean izango da. Maite Frankok zuzenduko du, eta lau urtetik bederatziru bitarteko gaztetxoek zuzendurikoa izango da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423

▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua:

683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134

▶ **Ibarralde.** Osasun etxea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Oreandain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ **Gurutze Gorria:** 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb.: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzarar autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurrumendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

GIZARTEA ▶

Gizarte osoari dei egin dio Etxerat-ek

EPPKri izaera politikoa aitortzea eta Euskal Herriratzea aldarri, bihar

JAIONE ASTIBIA

Hilabeteko azken ostiraleko elkarretaratzeak eginen dituzte bihar, Euskal Herrian zeharreko herri eta auzoetan: *Estatu politikoa alde; Euskal presoak Euskal Herrira* izanen dute lelo guztiak.

Honetakoan ere, Etxerat elkarrekin «beharrezko» jo du ekimen hauetan «euskal gizarte osoaren parte-hartzea»: «Gizarteak egin behar dio aurka sakabanaketari», baieztatu du. Estatuak «politika bortitza» egiten jarraitzen dutela esan du, halaber, presoek kartzele-

tan «aldioro» jasaten dituzten «parteak, isolamendu zigorak, bizi-baldintzen murrizpenak...» aitatu: «700 euskal preso politikoekin batera gure hezurretan jasaten dugun aldiroko oinarrizko eskubideen zapalketaren aurrean, euskal erakunde eta indar politikoei ere ez dute deus egiten», salatu dute. Horrela, «denoi dagokigu irtenbidearen alde lan egitea, euskal gizartearen ahalgina beharrezkoa da», ondorioztatu.

Zentzu horretan, hil honetako azken ostiraleko elkarretaratzeen deialdiei euskal kultur-



Lehenengo hilean jende mordoska elkartu zen elkarretaratzetan. J. ASTIBIA

gintzako hainbat ekinlarik beren atxikimena eman diete, horietan parte hartzeko deia beraiena eginez. Alpatzekoa da, horren isla modura, bihar bertan, 18:00etatik aurrera, Donostiako Lugariz kultur etxean, Antigua auzoan, poesia erreztaldia eginen dutela hainbat bertsolari, aktore, kantari, musikari eta kulturgintzako beste eragileek. Errezitatuko dituzten olerki guztiak «errepresentatuek egindako lanak» izanen dira.

Bestalde, LAB sindikatuak, aurreko hilean egin bezala, ho-

netakoan ere «dangile guztiei» elkarretaratzetan parte hartzeko dei egin die, «euskal preso eta senideen errebindikazioak bere eginez», HIZARA ere igorritako prentsa-ohar baten bidez. «Estatu politikoa onarpenak, preso oinarrizko eskubideen errespetuaz gain, kolektiboak ikusten duen eztabaidetan parte hartzea eta ekarpenak egitea ere suposatzen du», argitzen da oharrean, horretarako «ezinbestekoa da sakabanaketa politikarekin eta isolamenduari amaitzea». Zentzu horretan, Espainiarekin

eta Frantziarekin dagoen gatazkaren konponbiderako «ezinbesteko» jotzen du, era berean, EPPKren parte-hartzea. Ostiral honetako aldarriekin bat eginez, «hori ez da egun baterako hartzen den konpromisoa», nabarmendu du LABek: «Bakea eta Herri modura erabakitzeko eskubidea lortu arte hartzen duguna baizik», zehaztu.

Konponbidearen alde «denok dugu zer emana eta zer egin», adierazi zuen Etxerat-ek bere aldetik, eta «estatu politikoa alde eta gure senide, lagun, auzotar presoekin Euskal Herriratzearen alde gaudela adieraztera elkarretaratzeetara joateko» eskaria egin. Horrela, Tolosaldean eta Leitzaldean, herri frankotan egin dituzte elkarretaratze deialdiak biharko: 19:30ean, Tolosako Triangulon, Ibarako herri sarreran eta Alegia eta Amezetan, ohiko lekuetan; beste hainbeste dira egitekoak, baina 20:00etatik aurrera. Leitzan, Lizartzan, Anoetan, Ikaztegietan, Villabonan, Zizurkilen, Asteasun eta Adunan, ohiko lekuetan.

LEITZA ▶ HIRIGINTZA

Parkearen moldaketa lanak lehiaketara atera ditu berriz ere Udalak

70 mila euroko aurrekontuarekin, eskaintzak astelehen eguerdirako aurkez daitezke

J. ASTIBIA

Leitzako Udaletik Hitzara igorri duten lizitazio iragarkia araberak. «haur parkearen moldaketa» egiteko deialdia egin dute.

«70 mila euroko aurrekontua» izanen luke lan honek, eta «10 astetan egiteko» litzateke. Proposamenak «kontratua

esleipena arautzen duen baldintzen pleguan ezartzen den dokumentazioarekin» hornituta, «Udal Erregistroan» aurkeztu beharko dira. Interesatuak «urriaren 31ko eguerdiko hamabiak baino lehen» aurkeztu behar dituzte euren proposamenak.

Lan hauen baldintzen plegua Leitzako udaletxeko idaz-



Leitzako parkea. J. ASTIBIA

karitzan eskuragarri dago, eta harremanetarako 630 95 04 67 telefono zenbakia ere eman dute, Patxi Saenz alkatearena.

LEITZA ▶ UDALA

Hiru kontu urriko ohiko udalbatzarrean hizpide

Bihar eginen dute hileroko ohiko batzarra udaletxean, ohiko orduan, 21:00etan

J. ASTIBIA

Bihar eginen dute hileroko ohiko batzarra Leitzako udaletxean, 21:00etatik aurrera. Urriko honetan, gainera, ez dute gai zerranda oso luzea ere: horrelakoetan izan ohi dituzten akten onespina, ohar eta berriemate eta eskari-galderen atalaz gain, hiru puntu besterik ez baitituzte aztergai eta erabakigai.

Alde batetik, «2005eko mendiko loteen esleipenerako balorazio berria eskatzeko proposamena» aztertuko dute, lehenengo 19an Altsasun egin zen enkante bateratuan hutsik gelditu ziren loteentzat; «2006. urteko zerga, tasa eta prezio publikoak» onestea, bestetik; eta hirugarren eta azkenik, «kale eta lokalak garbiketa: kontratua luzatzeko proposamena».

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik

AGENDA ▶

ANTZERKIA

Alegia. *Nora hoa neska?* 22:00etan, Kirol eta Kultur Etxean. Kultur Astean.

DEIALDIK

Alegia. 1956-1957an Alegian jaio edo bizi diren afaria hildaren 12an. Izena emateko 40 euro sartu 2101 0073 16 0124706508an, azaroaren 3a baino lehen. **Hernialde-lrura.** *Belardo belar metaren ibilerak.* Hernialden, 17:00etan, liburutegian; Iruran, 18:00etan, liburutegian. Galtzaundi Euskara Taldeak antolatuta. **Lizartza.** *Bide eginez* batzarra, 20:00etan, udaletxeko areto nagusian. Bidea ikusi eta 4 urteko balantzea eta ildo politikoa aztertuko dituzte. **Tolosa.** Amaroako dantza taldeak hasi ditu eskolak. Ostegunero elkartuko dira; gaur, entsegua 20:30ean.

HITZALDIK

Tolosa. Ekuatore Gineako jardunaldietan, Gineako eta Sahara azpiko Afrikako emakumeen egoerari buruzko saioa, Purificacion Angue Ondoren eskutik. 18:00etan, Kultur Etxean.

ZINEMA

Tolosa. *Que es la vida* (Francois Dupeyron). Kultur Etxean, 21:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra. Iturrioz, I. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
Leitza. Larraia M.I. Elbarren 95. 112.

IRRATIA

Txolarre Irratia
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa.* 11:00etan, eguraldia Joxe Landarekin, HITZaren errepassoa, albisteak, oharrak; 11:45ean, Elhuyar fundazioaren eskutik, laztanen inguruan; 12:00etan, agenda; 12:15ean, Alegialdea, Orexako eta Legorretako Kultur Asteak; 12:45ean, Abesbatza Lehiaketa Moira Zeberioekin, eta Nazioarteko Trikitixa jaialdiaz Agurtzane Aizpurreekin; 13:15ean, lehiaketa eta disko eskainiak. **21:00-22:00.** *Gora Euscadi Chistulari* saioa, Matraiako irratiaren eskutik. **22:00-23:00.** *Gau bero* musika saioa.

▶ **HITZAK** ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.



Salvadora papelera eraisten ari dira

VILLABONA ▶ Salvadora papelerak herrigunean zuen lantegiaren azkenak ikusten ari gara. Hondeagailuak beren lana egiten ari dira, eta eraiki-na pixkanaka eraisten ari dira. Egunotan Kultur Etxearen ondoko lantegi zatia birrintzen ari dira

eta, horregatik, segurtasun neurriak medio, Kultur Etxea itxita dago. Bi egunetako kontua zena azkenean luzatu egin da, eta beraz, datorren asteazkena arte, azaroaren 2a, ez ditu Kultur Etxeak bere ateak irekiko. I. GARCIA

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Hegoi Baraibar Goñi (Areso). Zorionak zure lehenengo urtebetetzean. Ondo pasa egune, pottokil! Berrobiko attona-amonak, attato ta amabon partez.



URTE ASKOAN
Agurtzane Otamendi (Alegia). Gaur urteak. Beti bezain poliita jarraitu. Zure familiaren partetik.

HITZA,
zorion agurren tartea

Mesedez,
argazkia bi egun lehenago ekarri.
Mila esker!

HITZAren egoitzetara:
Araba etorbidea, 5 behea
TOLOSA
Udaletxeko bulegoa
LEITZA

GALTZAUNDI ▶



Aldizkaria. Galtzaundi.
Zenbakia. 222.a (2005eko urriaren 21a).
Orrialdeak. 24.
Tirada. 5.000 ale.
Gai nagusia. Pirritx eta Porrotx, maitasuna zabaltzen.
Beste gaiak. Ikaztegiak Kutturru atsedenekua, euskal prentsari laguntza, Ibarra areto futbol, etorkin gazteen euskararen aldeko apustua, 37. Abesbatza Lehiaketa...
Argitaratzailea. Galtzaundi Euskara Taldea.
▶ Nafarroa etorbid., 6-behea.
▶ 943 65 50 04.
▶ galtzaundi@galtzaundi.com
▶ www.galtzaundi.com

AIURRI ▶



Aldizkaria. Aiurri.
Zenbakia. 243.a (2005eko urriaren 21a).
Orrialdeak. 28.
Tirada. 2.500 ale.
Gai nagusia. Joseba Erkizia andoaindarra, HABEko zuzendari nagusi berria.
Beste gaiak. Urruzuno sariketa, Amaia Agirre billabonatarra bikain Bertsolari Txapelketan, Asteasuko ikastaroak, Amasako sanmartiñak...
Argitaratzailea. Manuel Larramendi Kultur Bazkuna.
▶ Kale Berria 47, 3. esk.
▶ 943 69 64 50
▶ aiurri@topagunea.com
▶ www.aiurri.com